


Euskal AEko industri jarduera %5,1 gehitu zen 2016ko otsailean

Industri Produkzioaren Indizeak %5,6ko gehikuntza izan du 2016ko lehen bi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2016ko otsailean %5,1 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2015eko hil beraren aldean. Industri Produkzioaren Indizeak %5,6ko gehikuntza izan du 2016ko lehen bi hiletan.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,5 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2016ko urtarrilaren aldean.



2016ko otsailean, 2015ekoaren aldean: Ekipo ondasunetan %14,2ko hazkundera, Energian %2,8, Bitarteko ondasunetan %2,6. Kontsumo-ondasunak %0,9 gutxitu guztira; iraunkorrak %-2,7, ez-iraunkorrak %-0,2.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,4
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-4,1
09 - Kautxua eta plastikoak	3,0
13 - Makineria eta tresneria	10,2
14 - Garraio-materiala	18,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	9,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2016ko otsailean, urte artean: Garraio materialean %18,5; Makineria eta ekipoen %10,2; Zurgintza, paper eta arte grafikoetan %9,6. Metalurgia eta metalezko produktuetan %3,4ko gehikuntza; azpisektoreetan denetik, nabarmentzekoa Siderurgia (%-15).

Jaitsierarik handienak urte artean: Material eta ekipo elektrikoa %-4,3; Energia elektrikoa, gasa eta lurruna %-4,1.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2016ko otsaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Ots2016/Ots2015	M(Ots2016)/M(Ots2015)*	Ots2016/Urt2016	Urt2016/Abe2015
Indize orokorra				
Euskal AE	5,1	5,6	-0,5	0,7
Araba/Álava	7,6	11,6	-2,5	4,2
Bizkaia	4,9	2,7	-0,7	-0,9
Gipuzkoa	3,8	5,3	1,0	0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,9	2,6	-4,3	3,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,7	4,6	-8,1	3,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,2	1,8	-2,9	3,6
Ekipo-ondasunak	14,2	17,2	-0,1	6,4
Bitarteko ondasunak	2,6	3,6	-0,5	-0,5
Energia	2,8	-4,6	-1,1	-7,1

(*) 2016ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2015eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen otsaileko urte artekoa, positiboa hiruretan: Araban %7,6; Bizkaian %4,9; Gipuzkoan %3,8. Hil artean, 2016ko urtarrilaren aldean: Araban %-2,5, Bizkaian %-0,7, Gipuzkoan %+1,0.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua